



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2008-02-16

VIURTEA 1.363.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Lizardik Euskal Herriaren historiari buruzko ikastaroa antolatu du

TOLOSA Etzi hasi eta apirilaren 28ra arte izango da Kultur Etxean 19:30ean, hainbat adituren eskutik

MINTEGIA Kultur elkartearen arabera, «Euskal Herriaren egungo egoera interpretatzeko baliagarria izango da» 4



Igone Vazquez eta Mikel Iriondo Hernaldeko Ostatuaren arduradun berriak. I.GARCIA

OSTATUAK ATEAK ZABALDU DITU BERRIRO

HERNIALDE Gaur egingo dute inaugurazioa; Mikel Iriondo eta Igone Vazquez dira arduradunak; kultur ekitaldiak ere antolatuko dituzte 2



Goiz partean eragindako kalteak biltzen ari ziren. I.GARCIA

Renault auto saltokiari eraso egin diote eta 12 auto kiskali dituzte

ANOETA HITZara heldu den idatzi baten bidez bere gain hartu dute ezezagunek ekintza 3

2008KO OTSAILAK 16, LARUNBATA

EGUNKARIAREN ALDEKO KANTU JIRA

- 11:30 Hernaniko dultzaineroak, Parte Zaharrean zehar
- 12:00-14:00 Kantu Jira, Konstituzio plazan hasita
- Arratsaldean Kantu eta dantza, Parte Zaharrean



Egunkaria 5 urte itxita, 5 urte kantu jira egiten



Joxe Arregiri omenaldia

ZIZURKIL ● Joxe Arregi zizurkildarra torturatuta hil zela 27 urte bete ziren hilaren 13an eta herriko hilerrian omenaldia egin zioten. Besteak beste, agurra dantzatu zuten hilobiaren aurrean. HITZA

II. Kultur Astea antolatu du Jesusen Bihotzak

ERREDAKZIOA

Jesusen Bihotza Ikastolak II. Kultur Astea antolatu du etzi hasi eta hilaren 24ra arte. Aurtengo Kultur Astea aurreko udan hil zen Andoni Beobide ikasleari eskaini diote. Hitzaldiak, pailazoak, antzerkia eta mendi ibilaldia izango dira ekitaldiak.

LH6ko eta DBHko ikasleek egingo dituzten herri kirolekin ekingo diote II. Kultur Asteari, etzi, 15:00etan, Olaederran. Hilaren 19an, *Tabako-kontsumoari aurre hartu* hitzaldi-tailerra egingo dute DBH1eko ikasleek goizez eta gurasoekin, elebidunez, 15:00etan Gurea erakusketa aretoan. 17:15ean ikasleek emanaldia egingo dute Gurea aretoan.

Hilaren 20an, hitzaldi tailerra

emango du Maribel San Sebastianek, XXI. Mendean hezi. *Heziketa oinarri garrantzitsuak* izenburupean. Gazteleraz izango da, 15:15ean, Gurea erakusketa aretoan.

Hilaren 21ean, Potxin eta Patxin pailazoan emanaldia HH eta LHko lehen zikloarentzat, Txermingo ganbaran, 15:30ean. Ernio-beako edozein haur eta bere gurasoentzat irekia dago, ikastolakoa izan alaez, eta sarrera doakoa izango da. 16:00etan, berriz, Mali elkartasuna proiektuaren aurkezpena egingo dute.

Hilaren 22an ere hitzaldi-tailer bat egongo da goizean eta antzerkia arratsaldean. Hilaren 24ean ibilaldi neurtua egingo dute, Txerminetik hasita.

Laburrak

Seduction Party antolatu dute gaur Asvinenean

ADUNA ● Asvinenean Seduction Party antolatu dute gaurkorako. 21:00etan hasiko da festa. Antolatzailerak diotenez, «maitasunez antolatutakoa da, single-entzako, eta bertan ez dira faltako dibertsioa eta are gutxiago giro ona». Lunch afrodisiako batekin hasiko da jaia, Sabur taldearen zuzeneko musikarekin. DJ Jorgek jarriko du ondoren musika eta «ezusteko asko izango dira gauetan zehar», azaldu dute antolatzailerak. Informazio gehiagorako 665 738081 telefono zenbakira dei daiteke.

Gazte Asanblada berpizteko ekitaldiak, gaur

VILLABONA ● Onddo Gazte Asanblada berpizteko helburuz hainbat ekitaldi antolatu dituzte gaurko: Kultur Etxean, 17:00etan, diapositiba emanaldia izango da Gazte Asanbladaren argazkiekin; 17:30ean, eztabaida egingo dute taldeka (Nolako Gazte Asanblada behar dute Villabonako gazteek?); 19:00etan, taldekako ondorioen azalpena. Ondoren, kiroldegiko tabernan, 20:30ean, afari merienda eta 21:30ean kontzertuak herriko bi talderekin.

Gazteek hainbat ekitaldi egingo dituzte asteburuan

AIZTONDO ● Aiztondo bailarako gazteek Kaxkagor elkartearekin batera ekitaldiak antolatu dituzte astebururako. Gaur goizean Adu-nako gazteekin Ernio mendira irte-
ra. 17:00etatik aurrera Zizurkilgo Kultur Etxean film bat animatzen diren gazte guztientzat. Filma gazteek aukeratu dute uanean bertan. Bihar Asteasuko gazteek proposatuta, Donostira joango dira, Ondarreta hondartzan boleibolean eta futboleko jolastera. Autobusa 10:20ean aterako da Zizurkilgo plazatik eta buelta 16:00etan izango da. Autobusa ordaintzeko 4 euro eraman behar dira.

Kantu afaria antolatu dute KMK 2008ren baitan

IRURA ● Kilometroak 2008ren egitasmoen baitan Kantuz Kantu Eraikitzen kantu afaria antolatu dute hilaren 23rako. 20:30ean elkartuko dira frontoian. 21:00etan afariari hasiera emango diote eta posterearekin batera herriari esker eman eta zirkuituaren nondik norakoak azalduko dituzte. Ondoren, kantu saioa egingo dute. Ekitaldia borobiltzeko, Unsain anaiekin erromeria egingo da. Txartelak salgai daude Anoetako Buztina, Itzuli eta Arkupe tabernetan eta Anoetako eta Irurako ikastolatan; hilaren 21a da azken eguna erosteko. Heldeku 15 euro eta haurrek 8 euro ordaindu beharko dute (haurren txartelak bi ikastolatan soilik daude salgai).



Hernialdeko udaletxean bertan dago Ostata. I. GARCIA

Hernialdeko Ostata gaur irekiko ditu berriro ateak. Igone Vazquez eta Mikel Iriondo dira arduradun berriak. Jatetxe-taberna zerbitzuaz gain kultur ekitaldiak antolatzeko asmoa dute.

Ostata berriro ere zabalik

IMANOL GARCIA

Gaur zabalduko dute berriro Hernialdeko Ostata. 12:00ak inguruan irekiko dituzte ateak eta pintxoak banatuko dituzte. Jatetxe-tabernaren arduradun berriak Igone Vazquez (Bilbo, 1978) eta Mikel Iriondo (Donostia, 1970) dira. Biek eskarmen dute ostalaritzan. Vazquez sukaldaren ariko da eta Iriondo barran.

Herri ostaturen baten bila zebiltzan. «Kaletarrak gara eta herri txiki batean bizi nahi genuen», azaldu du Vazquezek. «Ni hirietan egin dut batez ere lan, Menorcan, Bartzelonan eta Bilbon». Lehiaketara aurkeztu ziren eta aukeratuak izan ziren. Beste proiektuarekin aldearatu, kultur ekitaldiak antolatzeko asmoa zutela izan zen. «Guk ulertzen dugu hau bizi proiektu bat bezala. Dirua dugunean eta ez daukagunean beste modu batera, saiatuko gara kultur ekitaldiak antolatzen bertan». Horrela, hitzarmen batera iritsi dira Udalerrekin eta irabazien parte bat kultur ekitaldiak antolatzeko bideratuko dituzte.

Argazki erakusketak, margolanen erakusketa, bertso afariak, antzerkiak... moduko ekitaldiak dituzte buruan. «Herriko jaietara begira zer bait indartsuagoa egitea espero dugu», azaldu dute.

Hasieran barra eta pintxoak

Ostataren ardura izateak ere aukera ematen die udaletxean dagoen etxebizitzan bizitzeko. «Esan bezala herri txiki batera etorri nahi genuen eta gustura egonez gero hemen geldituko gara».

Ostalaritzari dagokionez «apurka-apurka» joango dira. «Lehenengo barrarekin eta pintxo batzuekin hasiko gara goizetan. Gero eguneko menua emateko asmoa dugu eta asteburuetan babarrun jana uda arte. Enkarguzko afari eta bazkariak ere emango ditugu eta gauetan behintzat ogitartekoak eta plater konbinatuak emateko asmoa dugu». Dagoeneko hurbildu zaie jendea noiz irekiko duten galdetzer eta horrek «animoak ematen» dizkiete aurrera begira. «Ilusio handiarekin gaude. Gainera oso ondo hartu gaituzte hezrian», dio Iriondok.

Gizarte eragileen babesa manifestazioari

ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak deituriko manifestazioarekin bat egin dute herriko hainbat gizarte eragilek. Manifestazio isila gaur egingo dute, 12:00etan, plazatik abiatuta, *Eska-bide demokratikoaren alde, ilegaltziaziorik ez* lelopean. Orain arte babesa eman dutenak ondorengoak dira: Uxo-Toki eta Zumbeltz elkar-

teak, Eresargi, Eresargi Txiki eta Eresargi Tipi abesbatzak, Oinkari dantza taldea, Danena-Olaederra Halterofilia taldea, Transportes Lakunza areto futbol taldea, Amasako Gazteak, Onddo Gazte Asanblada, Amasa-Villabonako Bai Euskal Herriari taldea, Aizkardi mendi elkarte eta Loatzto musika eskolako langileak.

TOLOSA

martxoak

7

ostirala

20:30

LEIDON

Pedro Guerra

"vidas" disko berriaren aurkezpena Euskadin



Tolosako ezker abertzaleko ordezkariak atzo iluntzean udaletxean egindako agerraldian. ESTI EZEIZA

«Ideiak garaile irten dira» Tolosan eta Euskal Herrian, ezker abertzalearen ustetan

Tolosa » Pozik agertu dira grebaren aurrean herritarrek eman duten erantzunarekin; «hurrengo erronka martxoaren 9a».

ERREDAKZIOA

Herenegun, milaka herritarrek egindako greba orokorra dela eta, «eskerrak» eman nahi izan dizkie Tolosako ezker abertzalekoek lagun guzti hauei. Izan ere, hauek «erantzuna eman dute, EAE-ANV, EHAK eta ezker abertzaleko kide batzuen aurka egindako bigarren greba galantaren aurrean».

Ezker abertzalearen esanetan, «herenegun urrats handia eman zen Euskal Herriaren aldeko demokrazia eta burujabetzan». Hala ere, otsailaren 14ko greba orokorra gain, aurrera begira «erronka handiak» dituztela argi utzi zuten.

Horregatik, hau da proposatzen dutena: «metatu dugun energia erabili behar dugu, gainean ditugun erronkei egoki erantzuteko».

«Urrats handia» eman dela deritzote ezker abertzalekoek, «tinko agertu baikara herri honen eskubideen defentsan». Orain, «Euskal Herriaren burujabetasunaren aldeko gutxienekoak zehazteko garaia» iritsi dela diote, «aldaketa politikoa garaia».

Bestalde, herenegun egindako mobilizazioen harira «ideiak garaile» irten zirela Tolosan, eta Euskal Herrian, agertu zuen talde abertzaleak, «alderdi eta sindikatu batzuen kontrako lanaren gainetik, Tolosa kalera irten baitzen *Aski da ozen*, duintasunez eta errespetuz esatera». Gaineratu zuten ere, «jakin badakigu egungo egoeran oso zaila dela greba egitea langile askorentzat, besteen aurrean aurpegia ematea ez baita txan-

txa gaur egun». Izan ere, beraien esanetan, «hilabetea bukatzeko behar duten dirua jaso gabe gertatuko baitira asko».

Aurrera begirako erronkak

Hurrengo erronkatzat jotzen dute martxoaren 9a, Espainiako hauteskunde orokorren eguna. Ezker abertzalekoek garbi dute beraien helburua ez dela «parlamentari bat edo beste lortzea Madril, Euskal Herria bizirik dagoela eta horren alde borrokatuko dugula erakustea baizik». Ezker abertzalekoen bozka, «duintasunaren aldekoa eta injustizien aurkakoa» izango dela azaldu zuten atzo egindako agerraldian. «Bizi dugun gatazka politikoari irtenbidea bilatzearen alde eta Euskal Herriaren eskubideetan oinarritutako irtenbidearen alde» daudela azaldu zuten eta hori lortzeko «lan egingo» dutela hemendik aurrera.



12 auto kiskali zituzten herenegun gauean egindako erasoan. IMANOL GARCIA

Renault-en auto saltokiari eraso diote, 12 ibilbailu kiskaliz

Anoeta » Herenegun gauean eman zen ekintza; idatzi baten bidez bere gain hartu du ezezagun talde batek ekintza.

ERREDAKZIOA

Herenegun gauean Renault marka frantziarraren auto-saltokian eraso egin zuten, eta bigarren eskuko zortzi auto erabat kiskali zituzten. Honez gain, beste hiruk kalteak jasan zituzten eta auto berri bat ere nahiko egoera txarrean geratu zen. Hala azaldu zuen Frantzisko Garciak, saltokiko kudeatzaileak.

Atzo goizean TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariaren egoitzara heldu zen komunikatu baten bitartez ezezagunek bere gain hartu zuten «Renault enpresa frantziarraren» aurkako eraso, «Euskal Herriaren aurka ematen ari diren erasoak salatze» egin zutelaa adieraziz.

Enpresako kudeatzaileak Hitzarekin mintzatu zenean azaldu-

takoaren arabera, ez zuen garbi zergatik erasotu zuten beraien lanategia. Susmoetako bat zen, greba orokorra ez egin izanarena, nahiz eta argi ez izan, «inguruko lantegi batzuetan ere lan egin baitzuten herenegun».

Ertzaintzak agertu zenez, herenegun gaueko hamaikak aldera izan zen eraso, Benta Aldea industrialdean; bigarren eskuko eta aukerako ibilgailuak saltzen dituzte saltoki horretan. Erasoaren ondorioz, sutea piztu zen, eta zortzi ibilgailu kiskalita geratu ziren.

«Euskal Herriaren aurkako erasoak salatu» nahi

Erasoaren egileek, ekintzaren arrazoia, «azkenaldian Euskal Herriaren aurka ematen ari diren erasoak salatzea» zela adierazi dute idatzian. «Erasoen» artean aipatu zituzten, gazteen atxiloketa masiboak, mahai nazionalaren illegalizazioak... Hala, adierazi nahi dute, «errepesio eta eraso guztien gainetik borrokan jarraituko dutela Euskal Herriaren eskubideak errespetatu arte».

Iragarki laburrak

LANA

■ **Tabernaria.** Anoeta. Itzuli tabernak neska euskalduna behar du. Zortzi edo lau ordutarako. Interesatuak deitu ondorengo telefono

zenbakietara: 635 74 52 91 edo 943 69 43 13ra.

ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Lan kontuak direla

eta, Tolosaldean lau hilabetetarako pisu bat alokatu nahi dut. Deitu 607 77 62 73ra (Inaxio).

■ **Garajea.** Garaje itxia Triangulon. Deitu 677 00 00 05era.

ARAMBURU
Salgai (Tolosa). Etxebizitza, Bidebieta auzoan, guziz eraberritua.
Salgai (Tolosa). Etxebizitza garajearekin, Trinkete auzoan.
Salgai (Tolosa). Garajeak, San Frantzisko eta Leidor azpian.
Salgai (Ibarra). Garajeak, Idoiaga auzoan.
Salgai edo Alokatzeko (Lasarte). Lokala, tximiniarekin, erdigunean.
Alokatzeko (Tolosa). San Frantzisko, lurre eta Araba etorbidean.
Alokatzeko (Ibarra). Pabiloi industrialak, Leaburuko bidean.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

ANOETAKO HERRI IKASTOLAK LANPOSTU BATERAKO DEIALDIA EGITEN DU

LANPOSTUA:

- Anoetako Herri Ikastolan administrari buru lanak betetzeko.
- Ikastolen lan hitzarmenak zehaztutako lan baldintzak.
- Egiturazko lanpostua betetzeko.

OINARRIZKO ESKAKIZUNAK:

- Euskara (EGA) titulua edota baliokideak.

Titulazio eta esperientzia baloratuko dira.

KURRIKULUMAK anoeta@ikastola.net-era bidali.
Otsailaren 25a azkeneko eguna.

TOLOSA otsailak
16 larunbata
17:00

POK produktioak
«Nik ez naiz txotxola»
«Nik ez naiz txotxola»
«Nik ez naiz txotxola»

«Nik ez naiz txotxola»
«Nik ez naiz txotxola»
«Nik ez naiz txotxola»

Euskal Herriaren historiari buruzko ikastaroa antolatu du Lizardi elkarteak

Tolosa » Etzi hasiko da eta apirilaren 28ra arte iraungo du; Kultur Etxean izango dira hitzaldiak, astelehenean, 19:30ean.

INIGO TERRADILLOS

Lizardi kultur elkarteak Nabarralderekin elkarlanean eta Tolosako Udala, Kutxa eta Euskadiko Kutxaren laguntzarekin Euskal Herriaren historiari buruzko ikastaroa antolatu du. Etzi hasiko da, eta apirilaren 28ra arte iraungo du, eta Tolosako Kultur Etxean izango da, 19:30ean.

Hitzaldi guztiak astelehenean izango dira, eta kronologikoki, historiaurretik hasi eta Karlistaden aurre bitarteko epea jorratuko dute gaiari buruzko hainbat adituk.

Antolatzaileen esanetan, «ohituegiak gaude gure herriaren historia kanpokoek gutaz esan dutenaren ikuspegiatik ulertzen. Zama pisutsu hori arindu nahian 8 saio izango dituen mintegia antolatu dugu, mendez mende inoiz ezagutzen ematen ez den irakurketa ikasteko». Horrela banatuta egongo dira euskaraz eta gaztelaniaz izango diren 8 saioak: historiaurrea, euskararen historia, historia de Euskal Herria, 1512ko konkista, Nafarroako defentsa sistema, 1200eko konkista, Nafar estatutaren sorrera eta euskararen desagertzea. Saio bakoitzean hizlariak gaiaren inguruko emanaldia egingo du, eta ondoren, solasean aritze-

ko tartea ere izango da parte-hartzaileen artean.

«Gaia oso interesgarria dela iruditzen zaigu, eta harrera ona izatea espero dugu», azaldu dute Lizardi elkarteak. Ikastaroa gaiaren inguruko interesa duen ororentzat irekia da, eta «Euskal Herriaren gaurko egoera interpretatzeko baliagarria izango da». Karlistaden aurreko garaia arteko epea jorratuko dute, eta ordutik gaur egungo garaietarako historia bigarren ekitaldi sorta baterako utzi dute Lizardi elkarteak.

Izen-ematea, 30 euro

Ikastaroetan izena eman nahi duenak Kutxako 2101-0067-27-0011-013372 kontu korronte zenbakian 30 euro sartu beharko ditu bere izena erreferentzia bezala jarrita. Etziko lehenabiziko saioan ere izango da izena emateko aukera.

» EGITARUA

■ **Lekua eta ordua.** Euskal Herriaren historiari buruzko ikastaroa Kultur Etxean izango da, 19:30ean.

Historiaurrea

■ **Otsailak 18.** Joseba Asiron Artearen Historian lizentziatua eta Nafarroako Unibertsitatean irakasleak emango du hitzaldia.

Euskararen historia

■ **Otsailak 25.** Mikel Belasco hizkuntzalaria eta toponimian aditua ariko da.

Historia de Euskal Herria

■ **Martxoak 10.** Mikel Sorrauren



Euskal Herriaren historia ikastaroaren egitarau orria. HITZA

irakasle eta historialaria, *Historia de Navarra, el Estado Vasco* lanaren egilea izango da.

1512ko konkista

■ **Martxoak 31.** Pello Esarte Industriagizon eta Historialaria eta *Navarra 1512-1530* liburuaaren egileak eskainiko du gaiari buruzko hitzaldia.

Nafarroako defentsa sistema

■ **Apirilak 7.** Iñaki Sagredo historialaria, Nafarroako erresumako gotorlekuak ikertzen ditu 1997az geroztik. *Navarra, castillos que de-*

fendieron el reino-ren egilea da, besteak beste.

1200eko konkista

■ **Apirilak 14.** Mikel Sorrauren irakasle eta historialaria.

Nafar estatutaren sorrera

■ **Apirilak 21.** Aitzol Altuna Ekonomia eta Enpresa zientzietan lizentziatua Deustuko unibertsitatean. Euskal Herriko historiaren ikerlaria.

Euskararen desagertzea

■ **Apirilak 28.** Aitzol Altuna Euskal Herriko historiaren ikerlaria.

Babarrunaren hazkuntzari buruzko ikastaroa antolatu dute

Zizurkil

» Oinarritzko informazioa jaso eta Babarrun elkartearen funtzionamendua ezagutu ahal da.

ERREDAKZIOA

Itsasmendikoi Fraisorok, Tolosako Babarrun Elkartearekin batera, Tolosako Babarrunaren hazkuntzari buruzko ikastaroa antolatu du. Ikastaroa Tolosako babarrunaren hazkuntzan interesaturik dagoen edozeini zuzenduta dago. Helburuak babarrunaren hazkuntzari buruz oinarritzko prestakuntza lortzea eta, Tolosako Babarrun Elkartearen funtzionamendua inguruan informazioa eskaintzea dira.

6 euroko matrikula ordaindu beharko da izena emateko, 2101 0381 04 0010671956 konu korronte zenbakian, kontzeptuan bi abizenak jarrita, eta ordainagiria ikastaroko lehen egunean eman beharko da. 943 692 166 zenbakian argitu daitezke zalantzak.

Honekin batera, *Heskaikak base-ri inguruan* ikastaroa ere antolatu dute Fraisorok.

Euskarazko webguneei diru laguntzak emango dizkie Udalak

Tolosa » Eskerak aurkezteko apirilaren 30ean amaituko da, eta ebazpenak epe hori bukatu eta bi hilabetera jakingo dira.

ERREDAKZIOA

Aurten ere Tolosako Udalak diru laguntzak emango dizkie webgunearen edukia oso-osorik euskaraz dituztenei. Eskerak apirilaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira.

2.000 euroko diru laguntza banatuko dute; eskatzaile bakoitzari, gehienera ere, webgunea euskaraz egiteak izan duen kostuaren %50a emango zaio, 500 euroko muga gainditu gabe. Eskatzaileek ebazpena eskerak aurkezteko epea amaitu eta bi hilabetera jasoko dute, eta epe hori amaituta ebazpenik ez bada ematen, eskatutakoa ukatu egin dela ulertuko da.

Hizkuntzaren kalitatea eta zuzentasuna ezinbestekoak izango dira, eta bisita kopurua, erabilgarritasuna eta eguneratzea ere aintzat hartuko dituzten baldintzak izango dira.

libre!

munduan libre bizi ahal izateko **Egunkaria** libre munduan bizi ahal izateko

2003. OTSAILAK 20

«Egunkariarekin gertatu denaren parekorik ez dugu European orain arte ikusi»

Joan Smith, Pen Club International-eko idazle eta kazetari kartzelatuaren batzordeko burua Erresuma Batuan.



www.egunkaria.info

'Txintxarrisfera' Alegiko blogosfera da: herriari buruzko informazio hurbila, iritziak, irudiak, nahiz kontu bitxiak aurki daitezke. Ia nahigabe sortutako blog bilduma da, beste gauza askoren artean.

Herriaz, herriarekin eta herrian

NEREA URIBIZU

Txintxarri hitzak Alegiko ekimen-elkarte-talde askori izena ematen die, begiekin ikus ditzakegu hauek. Uki-ikus-entzun daitezkeen txintxarrikeria hauek (zentzu onenean) uki ezin den beste ekimen-elkartetaldetate bat bataiatu dute: mundu birtualaz ari gara, teknologiaz, blogetaz, wikiaz, ordenagailuetaz, harremanetaz, informazioaz, irudiaz, bideoaz, iritziez, hitzez... Txintxarrisferaz, hitz batean.

Txintxarrisfera Alegiko blogosfera da. «Ez da aurretik prestatutakoa, ez finkatutako zerbait, pixkanaka jendearen ideiekin sortutakoa da», Iñigo Balerdi eta Beñat Garmendia alegiarrek azaldu bezala. Sustatzailea da Iñigo Balerdi, «baina denon artean egindako zerbait da, behetik ateratakoa. Edukiak denon artean eratu ditugu».

Tontokaletik blogak 2006tik existitzen du eta ondoren, eskolak ere sortu zuen Balerdiren bitartez. «Eta ondoren beste guztiak joan dira sartzen, ia nahi gabe». Teknologia berdina erabiltzen dute denek, Blogsomen, hain zuzen. Soka bat izan da, eta azkenean 10 blog ezberdin daude. «Tresna oso erraza da blogarena». Modu honetan «Alegiari buruzko albiste eta berriak idatzita gelditzen dira, baina ez kronista batek eginda, herritar xumeek baizik, hurbiletik. Iritzi partikularrak ematen ditugu, ezereen-inorren ordezkariak izan gabe».

Forma hartzen joan da Txintxarrisfera eta istorio erromantikoa ere ezkututzen ditu handitzen ari den mundu birtual honek: «Kanpoan dauden bi anaia alegiar komunikatu egiten dira honen bidez. Bata Derryn bizi da eta bestea Gasteizen. Bi katu izeneko bloga daukate: bitxia da kontua».



Iñigo Balerdi eta Beñat Garmendia, Intxurre elkartearen. N. URIBIZU

Wiki-wiki: azkar-azkar

Txintxarrisferaren webgunean, elkarren arteko lanaren bidez elikatzen den wikia dago. «Edozeinek nahi duena sartzen du nahi duenean. Anarkia honen barnean egitura bat sortu zen, guri begira». Nola demontre izeneko adibidez dago: norbaitek galdera bat proposatzen du eta nahi duenak erantzun egiten dio. «Blogari buruzko galderak egiten ditu jendeak eta wikiaren bidez, erantzun bat baino gehiago jaso dezake galdera horrekin».

Wikiko lehenengo orrian blog desberdinetatik sortutako azken albisteak azaltzen dira, eta beraz, berritzen joaten da. «Herriko jende ezberdin asko eta kanpoko ere bai sartzen hasi zen eta oihartzun handia izan du». Mundu birtual honek herritar desberdin asko lotu ditu eta afari bat ere egin dute. Sustatutak Txintxarrisferaren berri eman du. Honats oihartzuna.

Alegia 2.0: «Alegia soziala»

Alegia 2.0, «Alegia soziala, errealtate bihurtzeko». Lehen orrian Txintxarrisferako blogetako az-

ken berriak aurki daitezke. Ez dira blogak banan-banarakatu behar-ko bertako berriak jasotzeko. «Nahikoa da wiki txintxarrian sar-tzearekin eta lehen orria ikustea-rekin». Astero-astero, ia nahi gabe, albisteak sortzen dituzte. «He-mendik sortzen ditugun kontuak eskaintzen ditugu; gure ikuspegi-a globala da; ez globala eta ez lokala. Alegiatik mundura zabaltzen dugu».

Altxorrek, ondareak bilduta

Auzolan digitaleko lehen proposa-menak hauek dituzte: *Alegia Tag-zanian*: «Bertako baserri, plaza, etxe, leku, nahiz bideak etiketatu ditzagun». Bigarrena, *Alegiako his-toria ez ofiziala*: «Herriarrok idatz dezagun guretzat aintzat hartzeak direngertzerak, bakoitz-ak bereak. Ez dezan inork idatzi guregatik, izan gaitzezen gure his-toriaren esale». Arrakasta ari da izaten atal hau. «Musutruk egiten du jendeak, inplikazioa dago... Eta ez dago inongo konpromisorik».

Eta azken proposamena *Hizte-gie*: herriko eta inguruko herrieta-ko euskalkiko hainbat hitz erregis-

tratzeko da. «Gure euskalkiak bizi-rik iraun dezan». Hasi dira hitzak sartzen dagoeneko, *loaleik* izan gabe. Orokorrean, *ikiarrie* da egi-ten ari diren lana. Iñigo Balerdi ar-duratu da blog hauetan ibiltzen eta manejatzen irakasten, informati-koa baita. Jendeak ere erabiltzen du. «Ez da behar informatikaz ja-kitea, oso erraza da eta edozeinek har dezake parte, inongo konpro-misorik gabe». Balerdik esandako-ak *obeitu* eta ari dira bizia ematen Txintxarrisferari herritarrek.

» TXINTXARRISFERA

Estekak

■ **Herriarekin lotutako batzuk.** Ziztazale, muxika libre, argazkiak, wikipedian, albisteak...

Blogak

■ **Tontokaletik.** Aurretik zegoen bloga da.

■ **Musikalegi.** Musikari buruzko bideoak, albiste batzuk...

■ **Bi katu.** Derryn eta Gasteizen bizi diren bi anaiei harremana.

■ **Zazpi astoren gainean.** Bertso eskolako berriak, argazkiak...

■ **Balerditik.** Alegiaz gain, handik ere ematen dituzte berriak.

■ **Alegiko eskola.** Eskolako berriak, argazkiak...

■ **Eskolako ikasleak.** Gaztetxoentzako lekua.

■ **Txintxarri irratia.** Ikasleen irratia-saioak entzuteko aukera.

■ **Txintxarri abesbatza.** Kontzertu emanaldien berri, historia...

■ **Ugartetik.** Erreportai hurbilak poliki zainduak.

Webgunea

■ **Parte hartzeko, informatzeko...** <http://txintxarrisfera.wikispaces.com>

Olaberriak 13. egin du Munduko Kopan azken proben lehen zatian

ERREDAKZIOA

Leire Olaberria ikaztegiatarra Da-nimarkan Munduko Kopako lau-garren eta azken probak egiten ari da asteburuan. Ez dago atzoko emaitzekin oso pozik.

Atzoko saioan ez zen bera nahi bezala aritu. Jazarpen proban 13. egin du, eta «ez dut nire maila eman». Lehenengo 12 postuak dira balio dutenak, eta gutxiagatik hor-tik kanpo geratu zen. Halere, elite-ko txirindularia Pekingo Olinpia-detara ari da begira, baina «Olin-piadei begira, nahi ta nahiez maila ona eman behar da».

Gaur da egun garrantzitsua Ola-berriarentzat. Puntuekin lasaia go-ibiliko da puntuazio proban.

Laburrak

Etzi hirigintza-obretako batzordearen bilera

AMEZKETA ● Amezketan etzi 20:30ean balioanitzeko gelan hiri-gintza-obretarako eta kontuen ba-tzordeak bilera egingo du. Bertan Kultur Etxeko finantzaketaz era-bakiak hartu beharko dituzte, bes-tenen artean. Informazioa ere emango dute: industrialdeaz, Agenda 21eko dagozkion ekintzak batzordeari pasatzea, Aktuazio Urbanizatzaile Programa eta abar.

Asteko elkarretaratzeen erantzuna, «zabala»

POLITIKA ● EAE-ANVK deitutako ekitaldien erantzun «ona» jaso du Tolosaldean. Altzon 35 lagun bildu ziren egindako elkarretaratzean. Alegian azken orduan antolatuta-koak «erantzun ona» izan zuten.

INDEPENDENTZIA OIHUKATU

eusko alkartasuna herriarenahotsa

euskoalkartasuna.org

Bolada txarrari agur!



» Zilarrezko Jaurtiketa

Jon Altuna

Hilabete zaila bizi izan dute eibarzale eta batik bat Eibarko jokalariorik. Direnak eta ez direnak eginda ere, ezin genuen garaipenik lortu. Jendea urduritzen hasia zegoen eta baten batek mamu beltzak ere ikusten zituen etorkizunari begira. Aste honetan lorturiko garaipenarekin ordea, gauzak erabat aldatu dira. Realaren aurka lorturiko puntuak indar eta kemen handia eman zizkigun eta hori Celtaren aurkako partidari garbi geratu zen.

Partida zaila genuen, Vigoko Celtaren aurka hain zuzen ere. Lehen mailatik jeitsitako taldea, aurrekontu handienetakoa duena eta

jokalaria txundigarriak dituena. Partida gaizki hasi zen, bere maila eman zuten eta azkar jarri ziren aurretik. Arratsalde beltza izango zela zirudien, baina partidaren bigarren zatian gauzak zeharo aldatu ziren.

Talde txikia izan behar zuena hazi egin zen, handi bihurtzeraino eta partidari buelta ematea lortu zuen. Jendeak asko gozatu zuen igande arratsaldean Ipuruan, aspaldian ez bezala eta giroan askinabarria zen. Garaipen garrantzitsua izan zen, jaitsiera postuei tarte handiagoa irekitzeko eta sailkapenaren erdian lasai finkatzeko. Hamazazpi dira helburua lortzeko falta diren puntuak, gero eta gertuago dago baina hankak lurrean izan behar dira eta konfiantzarik ez hartu. Pasa dugun memento zail honetatik ikasi eta bete ditugun akatsak ez errepikatzen saiatu. Honelako gauzak ditu futbolarik, orain bi aste gauzak ilun ikustetik orain oso itxaropentsu egotera. Animoak eta egoeak haizea bezala aldatzen dira, eta orain alde dugun haizea bolada hau aprobetxatzen saiatu behar dugu.

Ibarratik Bizkaiara mendi bila autobusez

A. IMAZ

Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju taldeek mendi irteera antolatu dute biharko.

Goizeko 07:00etan irtengo da Ibarratik autobusa eta izena eman

nahi duenak 652 71 58 00 zenbakira dei dezake.

Ibarratik Bizkaia eta Burgosko mugaraino joango dira eta bertan, Ordunteko enbaltsearen inguruan egun pasa egingo dute.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Ibarran manifestazio jendetsua

POLITIKA ■ Ibarraldeko 7 gazteei babesa eskainiz, eskualdeko manifestazio jendetsua egin zen atzo Ibarran. Bertan 400 lagun bildu ziren eta 7 gazteek atxilotzeko arriskuan aurkitzen direla azaldu zuten, «fiskalak hitzartua ez duelako bete eta gauden une

politikoan denak balio duelako». 7 gazteak 2002an atxilotu zituen Guardia Zibilak kale borrokarekin lotuaz. Fiskalarekin adostasun batera iritsi ostean kalera irten ziren, baina orain espetxeratuak izateko arriskuan aurkitzen direla jakinarazi dute zazpi gazteek. A.I.

S Soka motzean

«Jaio nintzenez falta zitzaidan bakarra sudur gorri bat zen»

MAI GOROSTIAGA

Clown-a

A. IMAZ

Sudur gorritz agertu da Mai Gorostiaga (Tolosa, 1971).

Deskribatu zure burua?

Jaio nintzenez falta zitzaidan bakarra sudur gorri bat zen. Gero denborarekin sudur gorri hori lortu dut.

Antzerkia gustatzen omen zaizu.

Ez gustatu bakarrik, bizi egiten dut. Nire ustez antzerkia arte nagusia da; arte guztiak antzerkiaren barruan sar daitezke.

Zer da ikuslearengana iristea?

Komunikatzea. Agian baimena eskatzea nire barneko gauzak kontatzeko.

Jaiotzean falta, orain lortu, nola izan da prozesua?

Oso polita. Bi urterekin aitarekin hasi nintzen karroza batean aktuatzen. 12rekin aktuzio txikiak egiten nituen; 18rekin irratian hasi nintzen eta 22rekin lana utzi eta antzerkia ikasten hasi nintzen.

Sudur gorria; ez margorik, ez maskararik, ez mozorrorik...

Antzerkia bada arte nagusia, pailazoa da pertsonaia nagusia.

Clown-a.

Clown-a koitadua da baina ez da tontoa. Eszenatokian sudur gorri batekin mundua oso ondo dihoa.



HITZA

H Hilberriak eta urteurrenak



CONCHA ITURRALDE BLANCO

(Enrique Ezkurraren alarguna)

Atzo hil zen, 99 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-

Bere anai-arrebak: Ramon (?), Joaquin (?), Martin (?), Eugeni (?), Juan (?), Lola (?), Teresa (?), Pilar, Jose Mari; ezkon ahizpak: Maria Oses, Maritxu Uribe, Rosita Kildai; ilobak: Emilio, M^a Elena, Ibon eta gainerakoak; lehengusuak eta gainerako ahaideak.
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela GAUR LARUNBATA, arratsaldeko ZAZPIETAN, SAN FRANTZISKO parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Plaza Poeta Lizardi, 2 - 5^o
Oharra: Gorputz beila Tolosako Funeraria Vascongada Tanatorioan egongo da, gaur larunbata goizeko 10:45ak arte.

TOLOSAN
2008ko OTSAILAREN 16an

I. urteurrena

PILI ALBERDI ARIZMENDI

2007ko otsailaren 21ean hil zen, 51 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-

Ezin faltan bota, barne-barnean sentitzen baitzaitugu.

Urteurrenako meza BIHAR, IGANDEA, goizeko HAMAIKETAN, Segurako SORKUNDETARREN komentuan izango da.



SEGURA
2008ko otsailaren 16a



Bengoetxea VI.a, Beotibarren. A. IMAZ

Olazabal, Bengoetxea eta Barriola azkenaurreko jardunaldietan

Pilota » Mikel Olazabalek atzo jokatu zuen, Bengoetxeak eta Abel Barriolak, aldiz, gaur jokatuko dute.

N. GARZIA

Eskuz binakakoaren ligaxkako zazpigarren jardunaldia atzo gauean hasi zen, 23:00etan, Olazabalek eta Lasak Olaizola II.aren eta Mendizabalen aurka jokatu zuten norgehiagokarekin. Atzoko partidarekin, Olazabal aresoarrak Eugiren ordez jokatu zuen hirugarren goz.

Bengoetxea VI.ak eta Barriolak ere asteburu honetan jokatu dute, gaur, hain zuzen ere. Bengoetxea VI.ak eta Ruizek Titin III.aren eta Laskurainen aurka jokatu dute Labriten, leitzararren ustez «hil edo bizikoa» izanen den neurketa batean. «Irabazten duena finalaurrekoetan sartuko da».

Barriola eta Gonzalez, aldiz, Olaizola Laren eta Otxandorenaren aurka ariko dira Miranda Ebron. Asteburubatz, besterik ez da gelditzen ligaxka amaitzeko.

Finalaurrekoetako ligaxka

Finalaurrekoetan ere ligaxka jokatuko dute sailkatzen direnek, 3 asteburuetan zehar.

» SAILKAPENA

- **1. postuan.** Barriola eta Gonzalez, 6 punturekin.
- **2. postuan.** Titin III.a eta Laskurain, 4 punturekin.
- **3. postuan.** Olaizola II.a eta Mendizabal, 3 punturekin.
- **4. postuan.** Bengoetxea VI.a eta Ruiz, 3 punturekin.
- **5. postuan.** Olaizola I.a eta Beloki, 3 punturekin.
- **6. postuan.** Koka eta Begino, 2 punturekin.
- **7. postuan.** Xala eta Pascual, 2 punturekin.
- **8. postuan.** Olazabal eta Lasa, 0 punturekin.



Riaño finalaurrekoan ariko da gaur

LEITZA » Aurreko asteburuan izandako kanporaketan ondoren, asteburu honetan Nafarroako Bertsolari Txapelketaren lehen finalaurrekoa izanen da. Saioa gaur izanen da, Iruñeako Txantreako Ama Salestarraren aretoan (Beorlegi kalea, 24), 18:00etatik aurrera. Bertan 6 bertsolari ariko dira. Horiematik bik Leitza eta Iturengo kanporaketetan lortu zuten sailkatzea, Die-

go Riaño eta Xabier Terrerosek, hain zuzen ere. Elizagoien da aurtengo txapelketan ariko diren 25 bertsolarien artean txapela eskuratu duen bakarra. Gaur Txantrean ariko diren 6 bertsolarien arteko onenak zuzenean Elizondoko finalerako txartela lortuko du. Gainerakoek beste 2 finalaurrekoak amaitu arte itxaron beharko dute. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA



Festetarako ere joan den urtean mutil talde batek erraldoiak egin zituen. N.G.

Buruhandiak egiteko ikastaroa gaurtik aurrera martxan

Leitza » 12 izan dira izena eman duten neska-mutilak eta larunbatero elkartuko dira Oialde Txokon ekaina arte, arratsaldez.

N. GARZIA

Gaur hasiko da Koxkain Elkarteak antolatutako maskara eta buruhandien ikastaroa. Elkartetik azaldu dutenez, 12 gaztek izena eman dute, eta gaurtik hasita ekaina bitarte larunbatero bilduko dira, 17:00etatik 19:00etara.

«Lehenengo urtean urte osoan zehar bi irakasle etorri ziren eta jaiozten ikastaroa egin zuten», diote

Koxkain Elkartetik. «Irakasle edo begirale hauek beraien burua eskaini zuten berriro, gustura etortzen baitira eta beste ikastaro bat antolatzea erabaki genuen».

Ikastaro honentzako diru laguntza bat lortu nahian dabiltzala adierazi dute elkartetik. Gainera, asteburu honetatik aurrera, igandero ere Oialde Txoko irekitzeko asmoa azaldu dute, 17:00etatik 19:00etara. «Begiraleren bat lortu nahi dugu, eta gizarte zerbitzuekin elkarlanean ari gara horrentzako ere diru laguntzaren bat lortzeko. Hasieran, ordea, gurasoak joan gara». Modu honetan gazteek elkartzeko leku bat izan dezatela nahi dute.

L Laburrak

Ipuliñora ateraldia gaur, Mendibilek antolatuta

LEITZA » Gaur Mendibil Mendi Taldeak antolatuta umeez eta gurasoek ateraldia egingen dute, Berastegitik abiatu (San Antondik), eta gero Ipuliñora igoko dira. Azkenik trenbidera jaitsiko dira. Orotara 3 ordutako ibaldia izanen da. Bestalde, datorren asteburuan Aspe mendirako (Huescako pirinioak) irteera antolatuta dute.

Informatika ikastaroaren etorkizuna, zehazteke

ARESO » Informatika ezagutzeko Cederna-Garalurrek eta beste zenbait elkartek antolatu zuten ikastaroa bertan behera gelditu zen, behar adina jende izena eman ez zuelako. Cederna-Garalurko Elena Irigoienek azaldu duenez, «taldea osatu ez zen arren, aurrerago egiteko asmoa daukagu, urte amaieran behar bada, baina oraindik ez dugu erabakirik hartu».

'Egunkaria' ren aldeko bilera asteazkenean

IBARRA » Egunkariaren Aldeko Plataforma otsailaren 18an bilera irekia egingen du Ibarro Kultur Etxean, 20:00etan. Plataforma azaldu dutenez, «datorren asteazkenean Egunkaria itxi zutela 5 urte beteko dira, eta bestalde, epaiketa ere gainean dute batere erririk gabe inputatuta daudenez, eskualdekoak batzuk». Bilera asteazkeneko prestatuta dagoen ekintzaren berri ematen da.

Eskualdeko aizkolariak Urrezko Txapelketako finalaurrekoetan

Aizkora » Arkaitz Olan eta Ruben Saralegi leitzarrek, Jokin Alkizalete asteasuarra eta Arrospe leaburuarra dira.

ERREDAKZIOA

Bihar Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketaren bigarren finalaurrekoa jokatu dute Villanueva de Valdegovian (Araba). Bertan, besteak beste, Arrospe leaburuarra eta Olan eta Saralegi leitzarrek hartuko dute parte.

Getxon bezalaxe, bi finalaurreko jokatu ditzute, etorkizuneko en mailan batetik, eta elitekoa, bestetik. Lehenengoan Aratz Mugerza eta Jokin Alkizalete, Arkaitz Olan eta Ruben Saralegiren aurka lehiatuko dira. Irabazten dutenak Oihan eta Garikoitz Larretxearen aurka ariko dira finalean.

Elite mailan, berriz, Arrospe eta Aierbe Lopez Azpilikueta eta Vicenteren aurka lehiatuko dira. 12:15etan hasiko da saioa.

T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Algieldea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRIAOK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udalaitzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320



11°
7°

GOIZA OSTARTEAK
ARRATS.OSTARTEAK
BEROENA 11°
HOTZENA 7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@irragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketta, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarra, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Azoka

■ **Tolosa.** Zuhaitz Eguna Tolosan: azoka berezia goiz osoan zehar Triangulon eta haurrentzako jokoak eta zuhaitz landaketa Zabalarreta lorategian 10:00etatik 12:00etara.

Deialdiak

■ **Bedaio.** Barrikotea antolatuta dute Artubi elkarteak. 20:30ean da. 20 euro inguru ordaindu beharko da, gastuen arabera. Irekia da, bedaiotar nahiz kanpotarrentzat.

■ **Tolosaldea.** Bikarte errusiar umeen harrerako elkarte ongilea udan, gehienbat umezurtegiatan bizi diren zenbait haur errusiarri harrera emango lieketen familien bila dabil. Informazioa, 605709022 eta 687860395 telefonoetan.

Antzerkia

■ **Tolosa.** Teatrortek eta Pok produktzioek *Ni ez naiz txotxolo* antzezlan eskainiko dute Leidor aretoan 17:00etan, Olatz Beobide eta Xabier San Sebastian aktoreekin.

Kirolak

■ **Tolosa.** Aurrera-Saiaz eta Erniope aurrez aurre, kadete jubenil eta



Guerraren kontzerturako sarrerak

TOLOSA ● Datorren martxoaren 7an, ostiralarekin, Pedro Guerra abeslariak kontzertua eskainiko du, 20:30etik aurrera. Bertara joateko sarrera dagoeneko salgai jarri dituzte, Servikutxa, Teikutxa eta www.ku-

txa.net bitartez, 18 euroren truke. Leidor aretoan izango den kontzertu honetan artistak bere azken diskoa aurkeztuko du, *Vidas* izenekoa. Euskadin eskaintzen duen lehenengo kontzertua izango da. **HITZA**

senior mailatan, binakakoak. Irabaziz gero aurrera jarraituko dute txapelketan. Seniorretan Renobales-E. Galarraga ariko dira.

Zinema

■ **Tolosa.** *La sombra del cazador* filma emango dute asteburuan Leidor aretoan, gaur 19:30ean eta 22:30ean, bihar 19:30ean eta etzi, astelehenean (Ikuslearen eguna) 20:30ean.

■ **Villabona.** *American Gangster* filma emango dute asteburuan Gurrea aretoan: gaur eta bihar 19:30ean eta astelehenean (Ikuslearen eguna) 21:30ean.

Erakusketak

■ **Alegia.** Jose Luis Lopez tolosarraren margolanak daude Jubilatuaren tabernan, asteartetik igandera bitarte, hilabete osoan zehar.

■ **Tolosa.** Tomas Hernandezen Mendizabal artista donostiarraren erakusketa Aranburu Jauregian. Inauerietako kartelen egilea da.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1.943 673649.

■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 52.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.

txokoa **h**

antzezlanerako
2 sarrera pare
zozketan

Larunbata otsailak 16,
17:00etan
Tolosako Leidorren

Ni
ez naiz
Txotxolo



Irabazleak:

- Felix Aizpurua Aranburu (Asteasu)
- Imanol Zalakain Linazasoro (Villabona)

HITZAren harpidedunentzat abantailak

sarrerak leihatilan bertan izango dituzue

digitala **h**
@

Hilaren 21ean,
ostegunean,
12:00etan
INAXIO PERURENA
harri-jasotzailearekin
elkarrizketa digitala.

HITZAren erredakzioan izango da zuzenean zuen galderak erantzuteko. Aurrez ere zuen galderak bidali ditzakezue.



www.tolosaldeko-hitza.info webgunean

